

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

71/III/7

Urtebete daramazu Sestaoko pisu batean gordeta. Langile jendea bizi da, batez ere, auzoan, eta Bizkaiko Labe Garaiak dauzkazu parez pare. Alde egin baino lehen gero arte esan diozu etxekoandreari. Eskailerak jaitsi eta, portaletik atera bezain laster, ezker-eskuin begiratu duzu badaezpada. Ez duzu ezer susmagarririk ikusi. Igandea da, eguerdiko ordu bi eta erdiak. Kanpoan ez dabil ia inor. Iberia kalean behera, trenerako bidea hartu duzu. Azken bezero batzuk dabilta tabernetan, bazkaltzera abiatu aurretik erlojuari begira.

Txartela erosi duzu geltokian, eta, tunelean barrena, nasan gelditu zara esperoan. Inguruari erreparatu diozu arretaz: emakume bat eserita nobela bat irakurtzen; adin ertaineko gizon bat bueltaka; bikote gazte bat besarkada batean bilduta... Zeu bezala zain daude. Ez dute polizia trazarik, baina aparte samar gelditu zara hala ere. Trena iritsitakoan, denak igo arte itxaron duzu sartu baino lehen. Adi begiratu ondoren, hutsik dagoen leku batean eseri zara. Traba egiten dizu pistolak gerrian, bere lekuan egokitzen saiatu zara disimuluz.

Etenik gabeko katean pilatuta, Labe Garaiak, La Naval, Aurrera... utzi ditu trenak atzean. Lanegunetan ez bezala, ez da ke-adarrik ageri tximinietan gora, galdaretan ez dator burdina irakinik; ez dabil bagoirik bloke tzar goriak triki-traka garraiatzen... Sestaotik abiatu eta Barakaldoraino, txatar-metak, hodi okertuak eta burdinaren herdoila besterik ez da bazterretan ageri. Nahikoa da begiratu bakarra desolamenduaz jabetzeko, baina eroso sentitzen zara hala ere giro horretan. Ikuspegiaren gogorrak erakarri egiten zaitu. Langileak dauzkazu gogoan; neurririk gabeko lantegi horiek aurrera ateratzeko ahalegin eta sakrifizioak. Aukeratu duzun borrokak gizon eta emakume horiekin lotzen zaitu.

Lutxana, Zorrotza, Olabeaga... zeharkatu, eta Bilbora ailegatu da trena. Bidaiari guztiak irten arte egon, eta atzetik, badaezpada ere, kalera atera zara. Areatzako zubia igaro duzu ondoren, eta Alde Zaharrera sartu zara gero. Garaiz zabiltza. Iturralde kalean, El Meson de los Molinos izeneko tabernan daukazu hitzordua. Anton, Arriaga, Aizkorri eta Agirre bertan daude dagoeneko; Txo eta Burusoila besterik ez dira falta ETA VI.aren Bizkaiko Mahaia osatzeko. Arriaga eta Aizkorri izan ezik, beste guztiak erreta zaudete, badakizue zuen bila dabilzala.

Adiskideei keinu egin, eta kafea eskatu duzu barran. Agirre petako batean ari da jokatzeko. Taberna-zuloetan hainbeste hitzordu egin ondoren, sekulako trebezia dauka dagoeneko. Kikara eskuan hurbilduta, begira gelditu zara partida bukatu arte. Berehala iritsi dira besteak. Bata bestearengandik aparte samar, kale horretan bertan bi

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

zenbaki gorago daukazuen pisura abiatu zarete. Portalean egin duzue bat.

- Zer berri? -egin duzu galde.
- Giltzak... etxean utzi ditiat -azaldu dizu Burusoilak
- Ezin al dituk ekarri?
- Ordubete beharko nikek, gutxienez.
- Behingoagatik -proposatu dizue Txok- Zonako Batzordeak erabiltzen duen pisuan bil gaitezke.
- Segurua al duk?
- Hala uste diat -erantzun dizu.
- Non zegok?
- Elkano kalean; Plaza Eliptikotik gertu.

Esandako lekuan gelditu zarete handik ordu erdira, eta denborarik galdu gabe bakoitza bere aldetik abiatu da. Arratsaldeko sei eta erdietan eman diozue bilerari hasiera. Agirrek aurkeztu du gai-zerrenda. Lege Sindikal berriarentzat utzi duzue tarterik luzeena, bi ordu eta erdi; egun gutxi barru onartu behar omen dute Espainiako Gobernuan. Zazpi ordu hartu dituzue denera; beraz, ordu erdiko atsedena kontuan hartuta, ez dago goizeko ordu biak baino lehenago bukatzeko modurik. Izugarri berandu etxetik irteteko; hortaz, bilera murriztu gabe gaua bertan ematea erabaki duzue azkenean.

Eztabaida betean jardun duzue luzaro, baina, halako batean, gaueko hamaikak aldera, ateko txirrinak jo du labur eta lehor. Erabat mutu geratu zarete. Egoera konprenitu ezinik, beldurrak airean, batak besteari begiratu dio galdezka.

-Zein izan litekeek?

Antonek, isilune labur baten ondoren Txo! esan du; izan ere, bizpahiru hitzordu zeuzkala-eta, ordu pare bat lehenago irten da etxetik. Ez zuen itzultzeko asmorik, baina, beharbada, auskalo zergatik, bueltatzeko erabakia hartuko zuen. Horrela, bada, ate joka datorrena bera dela sinistu nahi izan duzue.

Ez zaude batere seguru, baina bera duk esan duzu zeuk ere. Ezin izan duzu, hala ere, poliziaren bisita baztertu.

Zalantzan egon zarete une batez. Txoren aukera iruditu zaizue gertagarriena, eta atea zabaltzea erabaki duzue. Anton izan da zutitzen aurrea. Gainerakoak, adi-adi, zer gertatuko, gelan gelditu zarete zain. Giltzak sarrailan atera duen hotsa entzun duzue lehendabizi, eta handik gutxira garrasi egin du Antonek. Istiluaren zalaparta zabaldu da berehala giroan, pauso arin batzuk antzeman dituzue pasilloan barrena; zuen bila datoz.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

–Polizia... Polizia...! –egin du norbaitek oihu. Ikara menderatu ezinik bat-batean altxa eta, erasoari aurre egin ahal izateko, armairua eta sofa luze bat hasi zarete desesperatuki lekuz aldatzen.

Altzariak mugitzerakoan ateratako zarata entzun bezain laster kontuz, jendea zebilek esan du polizia batek ozenki. Argitan dagoen bazter batean, gero eta gertuago, itzalak dabilta dantzan. Halako batean, pistola baten muturra lokian, Anton ikusi duzue polizia baten mende.

–Eskuak gora –mehatxatu zaituzte oihuka–, bertan akabatuko diat bestela.

Begietatik gora agerian, altxatu berri duzuen hesiaren atzean zaudete gordeta. Hiruzpalau polizia daukazue parez pare, edozein momentutan tiro egiteko prest. Dardara txiki bat egin zaizu eskuan; tinko heldu diozu, hala ere, pistolari. Bi kargadore daukazu balaz beteta ezkerrean. Aldamenean, star bat eta kargadore bikoitza berekin, bero-bero eginda dago Agirre. Sofaren azpitik atea dagoen lekura ari zarete biak apuntatzen. Beste inork ez darama armarik. Ihes egiteko posibilitateak kalkulatzeko saiatu zara ahalik lasterren.

“Tiro eginez gero –atera dituzu kontuak– Anton garbituko ditek berehala. Kalera egin beharko nitek salto, baina... Hiru solairu zeudek”.

Zer erabaki jakin gabe, geldi-geldi egon zarete tarte batean. Aurka egiterik ez dagoela konturatu ahala, eskuak garondora eraman dituzue, zutitzen hasi zarete. Bat-batean etorri zaizkizue polizia guztiak gainera, banan-banan miatu zaituztete armarik ba ote daramazuen jakiteko. Ez daukazue gainean dagoeneko; gaitz erdi. Sofaren azpian gorde du Agirrek bere pistola ahalik disimulurik handienarekin. Zuk ere gauza bera egin duzu. Amore eman behar izan duzue luze baino lehen.

Alde egin aurretik, gela ez ezik, pisu osoa arakatu du poliziak. Edozein gauzak balio lezake zuen kontra. Armairuaren tiraderak burrunba batean bota dituzte lurrera, sofaren tapizeria ere altxatu dute. Azkenean, pistola biak agertu dira zirritu ezkutu batean.

–Putasemeak! –esan du poliziak sutan–, bala errekarman sartuta zitean, tiro egiteko pronto.

Ez zuten, nonbait, espero, eta mehatxuka jardun zaizkizue haserre bizian. Halako batean, tiro batek egin dio norbaiti ihes. Betaurreko zuriak daramatzen polizia potolo bat izan da. Pistola deskargatu bitartean, katuari eragin dio nahi gabe. Arriagaren belauna ukitu du ozta, eta egurrezko zoruan gelditu da iltzatuta bala.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

–Neu izan nauk –eman die jakitera besteei, eta errebolberra altxatu du, badaezpada ere, kontrolpean daukala erakusteko.

Danbadarekin nabarmen asaldatuta, beste polizia bat, gainerakoak baino zaharragoa, presaka sartu da gelan. Egoeraz jabetu denean, lasaitzeko agindua eman die ozenki. Agintzen ohituta ematen du. Talde-buruaren tankera hartu diozu agertu orduko.

Eskuak buru atzean jarrita daukazue oraindik. Ile luzeko hiruzpalau polizia gazte, modako arrokekin jantzita, zuengana ari dira apuntatzen. Pistolaren katuan behatza, mehatxuka ari zaizkizue oraindik, baina, hasierako urduritasuna gaindituta, poza nabari zaie begietan; lehenik eta behin, harrapaketarengatik, baina baita galdeketaren ondorioz agerian gelditu litekeen guztiarengatik ere. Mahai gainean, propagandarekin eta beste zenbait gauzarekin batera, zure libreta ikusi duzu.

“Akabo, dena galduta zegok” pentsatu duzu.

Zureak egin du. Azken aldian adostutako hitzorduak daukazu bertan jasota. Ahalegin desesperatu batean eskuratu ondoren, orriak puskatzen saiatu zara, baina kolpe bat eman dizute urdailean. Lurrera erori zara zerraldo. Ezin izan duzu ezer egin.

Azkenean, polizia-buruaren esanetara, bataren ezkerre bestearen eskuinarekin, binaka, eskuburdinak jarri dizkizute. Agirre egokitu zaizu bikotekide. Ikarau dauka belaunak. Eskaileretan behera eraman zaituztete, gero. Ordu txikitan atera zarete etxetik, baina jendea dago, hala ere, ikuskizunari jakin-minez begira. Auto beltz bat daukazue zain, Seat 1500 bat. Atzeko lekuan egokitu zarete bi poliziaren artean. Aurrean gidaria eta beste morroi bat jarri dira. Ziztu bizian abiatu zarete Bilboko kaleetan barrena.

Automobilaren argi txikiak, erakusleihen distira, semaforoak, farolak... sartu zaizkizu begietatik. Espaloietan dabilen jendeari erreparatu diozu arretaz. Ihesi doakizu dena. Azken irudi horiek zure barruan gordetzen saiatu zara, iraganak irentsi baino lehen. Beldur fisikoa ez ezik, bestelakoa ere sentitzen duzu. Tortura datorkizu erremediorik gabe gainera, jipoia. Ikara eragiten dizu, baina, beharbada, komisariatik iragan ondoko garaia nahigabetzen zaitu gehiago: gizartetik aparte, harreman politikorik gabe, burkide eta lagunenekiko loturak etenda, afektibitatean behartsu... etorkizun hurbilak kartzelako bakardadea besterik ez dizu eskaintzen. Atsekabe hori darabilzu buruan.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

Eraikuntza baten aurrean gelditu zarete. Polizia armatu bat dago zaindari. Bilboko Poliziaren Burutza Nagusian zaudete. Atea zabaldu bezain laster, patio itxi batean sartu da automobila. Ateratzeko agindua jaso duzue, eta satora eraman zaituztete berehala. Polizia kabu batek –bertako gelak zaintzeko ardura daukanak, beharbada– berriro miatu zaituzte. Erlojua, sakelako zorroa (dokumentuak eta dirua barru), betaurrekoak, gerrikoa eta zapaten lokarria kendu dizkizu.

–Badaezpada –esan dizu irri maltzurrez–, urkatzeko tentazioan eror ez hadin.

Pozik ematen du bere zeregin makur hori betetzen. Hizketarako gogoia dauka. Barre egin nahi du zuen kontura.

–Zuentzat. Hartu... –esan dizue bere pistolarekin jolasten duen bitartean–. Egizue ihes... Ez duzue potrorik.

Badakizue deskargatuta dagoela, baina jolas egin nahi du itxuraz; jostailu gisa erabili nahi zaituzte errukirik gabe.

–Oraingo honetan –mintzatu zaizue harro– bete-betean harrapatu zaituztegu, baina ez larritu, mutilok, etxean bezala egongo zarete hemen. Hobeto beharbada; hotel batean bezala. Zuen zerbitzuan izango gaituzue gau eta egun.

Gela karratu batera eraman zaituztete ondoren; galdeketak egiteko erabiltzen dutena, beharbada. Ez dago leihorik. Altzaririk ere ez dago. Apal txiki batzuk besterik ez; aspaldiko artxiboren baten hondakinak, seguru asko. Bertan dago Txo, Ezkerraldeko burua, aurpegia gorri-gorri eta ileak nahasi, bazter batean etzanda. Jipoiak utzitako seinaleak dauzka soinean nabarmen. Elkano kaleko etxetik irtendakoan harrapatu dute, nonbait.

Anton dauka bere ondoan, Basauriko arduraduna; behatz batekin ilea oharkabean kizkurtzen, ohi bezala. Arriaga, Unibertsitateko burua ere, aurpegia esku artean gordeta, han dago, eta bere alboan Agirre, Bizkaiko arduradun politikoa. Ipar Euskal Herrira alde egiteko asmotan, zurekin partekatu du bere erantzukizuna orain arte, baina egun horretan bertan eman behar zizun testigua. Aizkorri (Bilboko arduraduna) eta Burusoila (Eskuinaldeko burua) izan ezik, beste guztiak elkarrekin zaudete.

“Noiz arte egon behar ote diagu hemen sartuta?”.

Ez daukazu jakiteko modurik. Denboraren mugarik ezak ikara ematen dizu; izan ere, 1971ko martxoaren 7a da, eta Salbuespen Egoera indarrean dago.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

Esku-burdinaz lotuta oraindik, elkarrengandik aparte samar, kalez jantzitako polizia batek zaintzen zaituzte. Berrogeita bosten bat urte dauzka, betaurrekoduna, eta intelektual itxura eman nahi du zuen aurrean. Mespretxuz, dohakabe gizajoak bazinete bezala begiratzen dizue behin eta berriz. Egia esateko, burumakur eta pentsakor, itxura tamalgarria daukazue; errukitzeko modukoa.

–Zer arraio nahi duzue zuek? Espainiatik banatu? –galdetu dizue, eta, erantzunaren zain egon gabe, hizketan jarraitzeko baimena eman dio bere buruari-. Ero hutsak zarete. Ez daukazue erremediorik.

Zuen pentsaerarekin interesatuta ematen du, baina plantak besterik ez dira. Azken batean, bere “gaitasun intelektual” eta “euskal arazoari buruz” zenbat dakien erakusteko erabili nahi du aukera. Entzun beste erremediorik ez daukazue, eta, zentzuaren eta pragmatismoaren onurak aipatu ondoren, horrela esan dizue:

–Etorkizun bikaina, ikasketak, dirua ere nahikoa... Ez zaizue ezer falta familia osatu eta seme-alabekin primeran bizi ahal izateko. Baina... ez. Parisen bizi den “Marx Lenin” horri egiten diozue kasu – esan du konbentzimenduz beteta-, bere ideia absurdoak irensten dituzue, eta, jakina, burua galtzen duzue ezinbestean.

Ez diozu arreta handirik eskaini, baina “Marx Lenin” entzun, eta Parisen jarri duenean bizitzen, barreari eutsi ezinik gertatu zara, eta une batez distraitzeko aitzakia ere eman dizu, egia esateko. Ez da, hala ere, isildu, eta, bere arrazoibidea egiaztatzeko, beharbada, zuen ikasketa eta lanbideen berri galdetu dizue ondoren. Maisu industrialak, langilea, telekomunikabideetako ingeniaria, ekonomiako ikaslea...; bakoitzak berea esan du. Ez diozue erabateko gezurrik esan, baina bizpahiru urte daramatzazue gehienek isilpeko lanetan.

Handik aurrera, euskal abertzaletasunari buruzko hitzaldi luze batean endredatu da. Ez dago oso argi zertarako: “ideia separatistak” ezeztatu, eta aurka egiteko asmoarekin seguru asko. Esaten duenez, García Veneroren Historia del Nacionalismo Vasco irakurrita dauka, eta bat omen dator egilearekin; izan ere, zer da separatismoa, azken batean?: “un crimen de lesa patria”, “un insensato acto de desesperación”. Beste leku batean daukazu zuk burua; galdeketari aurre egiteko zein estrategia erabili ari zara berandu baino lehen hausnartzen.

Oharrez, txostenez, hitzorduz betetako libreta bat harrapatu dizute, eta horrekin zaude batez ere kezkatuta. Batzuek zure ezizena daramate, hau da, Mentxaka, eta arrisku handian jartzen zaituzte; izan ere, Bizkaian ez ezik, Euskal Herriko beste alderdi batzuetan egokitu zaizkizun zenbait ardura eta jarduera uzten dituzte agerian.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

Ez da kezka bakarra, zeren mahaikideek ere badute zure berri; beraz, bakoitzak zuri buruz jakin dezakeena saiatu zara laburbiltzen.

Azken urtean egin duzun guztiaren berri dauka Agirrek, baina gainerakoek ez dakite hainbeste, nahiz eta ardura politikoa aurki zure eskuetan gelditzekotan zela jakin. Antonek eta Txok, bestalde, pare bat ekintzatan hartu dute parte zure ardurapean, eta hori ere ezin duzu ahaztu, baina, lehenengo eta behin, koadernoarekin daukazu lotura eten behar duzu, eta modurik egokiena, beste ezizen bat lehenbailehen asmatzea iruditua zaizu. Egia esan, letra aztertzea nahikoa dute libreta zurea dela konturatzeko, baina gero ere bururatuko zaizu beste zerbait.

Horrela, bada, gogora etorritako lehenengo izena aukeratu duzu: Antonio. Ingurukoei nola jakinarazi; hor dago arazoa. Oraindik elkarrekin zaudetela baliatu beharra daukazu, bakoitza bere zuloan bakartu baino lehen.

Adiskideen arreta zeureganatzen saiatu zara. Agirre daukazu ezkerrean, eta txit esan eta gero, keinu bat egin diozu. Gor batekin hizketan bezala, poliki-poliki, zure izen berria isilpean adierazten ahalegindu zara ezpaineekin.

–Men-txa-ka, ez; An-to-ni-o. Men-txa-ka, ez; An-to-ni-o.

Ahalik eta disimulu handienarekin saiatu zara, baina, halako batean, poliziak, “intelektualak”, harrapatu egin zaitu. Sutan jarri zaizu; zure asmoak galdeketan izan dezakeen eragin txarrarengatik baino gehiago, bere hitzaldia arretaz ez entzuteagatik seguru asko.

–Zer nahi duk? Ostia-zaku bat jaso? –egin dizu mehatxu bere zakurkeria gorde gabe-. Nola duk izena?

–Jose Ramon Goikoetxea –erantzun diozu, mekanikoki, ondoriorik kontuan hartu gabe.

Esan orduko konturatu zara okerrarekin eta inozo, kaiku, babo... deitu diozu zeure buruari. Nola alferrik galdu liteke horrelako aukera, zeure guda-izen berria jakitera emateko? “Intelektualak”, ordea, zu baino dezente baldarrago, beste zerbait dauka gogoan.

–Ezizena, esaidak ezizena... bazekiat guda-izenak erabiltzen dituzuela.

Okerra zuzentzeko aukera eman dizu dohainik, eta, jakina, ez duzu alferrik galdu.

–Antonio, Antonio... –esan diozu behin eta berriz.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

–Horrela hobeto zegok –eskertu dizu, eta Agirreri galdetu dio ondoren–. Zein duk hirea?

–Agirre –erantzun dio, eta, banan-banan, bakoitzari berea eskatu ondoren, bakean utzi zaituzte.

Oraindik ez zaude seguru ezizen berriaren kontua denek behar bezala ulertu ote dizuten. Denbora irabazteko trikimailu gisa ere har dezakete, eta ez diote akaso behar duen garrantzia eman; izan ere, besteek ez dute zure libretaren, oharren eta, azken batean, zure kezkaren berri.

Atea zabaldu da berriz, eta bi polizia gazte sartu dira Antonen bila. Handik gutxira, iskanbila entzun da aldameneko gela batean. Joka ari zaizkiola konturatu zara. Izugarri garbi entzuten dira kolpeak. Egundoko burrunba egiten du hormak. Antonen garrasiek ikara eragin dizute.

Adorea erakusteko garaia hurbiltzen ari zaizula konturatu zara. Kemena eskatu diozu zeure buruari gainera datorkizun erasoari behar bezala aurre egin ahal izateko. Victor Serge-ren Edozein iraultzailek errepresioari buruz jakin behar duena liburuan irakurritako aholkuak daukazu gogoan. “Odola hotz”, “esan beharrekoa ondo hausnartu”, “isilune asko” eta “baiezko eta ezezko gutxi”. “Jakinaren gainean gaude”, “zure lagunek dagoeneko aitortu dute” esango dizute, badakizu, baina ez diezu kasurik egin behar, eta, batez ere, goiari eutsi behar diozu, mehatxu eta jipoien aurrean kikildu gabe.

Lehen ere egona zara Guardia Zibilaren atzaparretan, baduzu torturaren berri, eta, orduko eskarmentuan oinarrituta, badakizu, edo susmatzen duzu, aurreneko galderak nondik eta barrena etorriko zaizkizun.

–Non bizi haiz?

Armak ere kontuan eduki behar dituzu, oraindik ez baitute jabe ezagunik. Inori ez diote pistolarik harrapatu gainean, eta bi erantzule behar dituzte.

Ez duzu Sestaoko helbidea inolaz ere eman nahi; lehenik eta behin, gordean eduki zaituen familia defendatu behar duzulako, baina, era berean, dokumentu gehiago eta batez ere metrailetak ager ez daitezen. Inork ez du zure etxea ezagutzen; beraz, hori zure esku dago. Pistolaren bat leporatzen badizute, berriz, ukatu beste erremediorik ez daukazu. Ez duzu ahorik zabaldu behar irtenbideren bat aurkitu arte. Zin egin duzu isilik egongo zarela.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

Handik ordu erdira ekarri dute Anton. Aurpegia gorrituta dauka, odol-hari bat dario sudurretik, baina lasai ematen du, oso lasai, eta adorea kutsatu dizue gainerakoei. Arriaga eraman dute ondoren. Kolpeak, garrasiak entzun dituzue berriro. Torturaren lekuko zuzen izatera behartuta zaudete. Ez duzue ikusten, baina ez da taktika txarra. Ezin duzu izua gainetik kendu.

Zeu izan zara hurrena. Beste gela batera eraman zaituzte; utzi berria duzunaren berdina, txikiagoa beharbada. Aulki bat eta mahai bat; ez dauka besterik. Kalez jantzitako lau polizia daude zure zain. Erdi aldera bultzatu zaituzte bat-batean, eta gainera datozkizun kolpeei aurre egiteko, tentsioan jarri zaizu gorputz osoa berez. Hitzik esan gabe hasi zaizkizu joka.

Urdailean eman dizute lehenengoa, aurpegian gero; ukabilen eraso jasan ezinik, lurrera etorri zara berehala. Eskuekin indarrez heldu eta zutiarazi ondoren, elastikoa atera dizu polizia batek indarrez. Olio-mantxa bat daukazu zurian, eta agerian gelditu zaizu. Ahaztuta zeunden pistolarekin, harrituta gelditu zara. Bere zorroan sartuta eraman ohi duzu, baina koipeak batzuetan zikindu egiten dizu arropa.

–Putaseme halakoa –esan dizu haserre–. Zein duk hire pistola? Bietako bat hirea duk. Seguru nagok. Aitor ezak.

Aspertu arte astindu zaitu, gupidarik gabe. Ileetatik helduta erantzun ezak, kabroia esan dizu behin eta berriro. Ezetz erantzun diozu; ez zeneramala armarik gainean.

–Non bizi haiz? –galdetu dizu ondoren, sutan, jipoitzen zaituen bitartean–. Pistolari buruz hitz egingo diagu gero...

Lurraren gainean, kolpe eta ostikoei aurre egiteko kuzkurtuta, ez dizute oihua eta garrasia besterik atera. Altxatzen zaituzten bakoitzean, erori egiten zara berriro. Azkenean, kolpeak ez dituzu ia sentitzen ere.

–Etzan ezazue mahai gainean –agindu die buruak morroiei–. Zerria balitz bezala.

Burua eta bizkarra mahaitik kanpo dauzkazu, lehertu beharrean jarri zaizkizu zainak. Urdailean etengabe kolpeka, eramanezina egiten zaizu jarrera horretan irautea. Istant bat gehiago itxaron gabe, indarra egin duzu buruz behera erortzeko. Hartutako kolpearen ondorioz, konortetik ia gabe gelditu zara lurraren gainean.

–Ez hadi ergela izan. Esan ezak non bizi haizen. Hilabeteak ditiagu, behar izanez gero.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

–Duela gutxi zeharkatu dut muga –erantzun diezu–; errefuxiatu politikoa naiz.

Urtebete luzea daramazu mugaren alde honetan. Zenbait eginkizunetan hartu duzu parte Bizkaian eta beste herrialde batzuetan. Ez zaizu komeni kontu horiek agerian gelditzea, horregatik esan duzu heldu berria zarela. Iparraldea utziz geroztik barruan zertan zabiltzan galdetuko dizute laster. Oraindik ez dakizu nondik atera.

Ostikoka hasi zaizkizu berriz; ileetatik helduta, buruarekin hormaren kontra kolpeka. Atsedetik eman gabe, mahai gainera eramane zaituzte behin eta berriz. Azkenean, leher eginda, arnasa hartu ezinean gelditu zara. Esandakoari eutsi diozu hala ere. Indarrik gabe, puztuta eta minbera egon arren, pozik zaude. Aurreneko gatazka irabazi duenaren adorea sentitzen duzu barruan.

Aspertu direnean, ez zaituzte lehengo lekura eramane, adiskideekin batera egon zaren gelara. Burdin ziriak dauzkan ate bat iragan, eta pasilloan barrena egin duzue aurrera. Ezker-eskuin, ziega bakoitzak bere zenbakia dauka. Aulki bat ekarri dute zuretzat. Esertzeko agindu dizute, eta pasilloaren erdian utzi zaituzte kanpoan.

Gaua badoa, baina ez zaitu loak hartzen. Burua esku artean, irtenbide bila saiatu zara, nola engaina ditzakezun. Ipuinen bat erabili beste erremediorik ez daukazula iruditzen zaizu. Edozein historia bat-batean asmatzea, ordea, arrisku handikoa gerta daiteke, eta jakin badakizu hutsune eta akatsik gabe lotzea ez dela batera erraza izaten. Victor Sergek bere liburuan aholkatzen duenarekin gogoratu zara: “ez jokatu gero, maltzurrena bazina bezala; indarren arteko desoreka handiegia izaten da”. Argi, ausart, sinisgarri jardun beharko zenuke, hala ere, eta suerte pixka batekin, beharbada, dezenteko puska kenduko zenioke kartzelaldiari. “Ezer ez esan” eta “aitortu, inoiz ez” esan dizu idazleak, baina Salbuespen Egoera dago indarrean, eta hiru eguneko epea nahi adina luza dezakete; beraz, beste taktikaren bat erabili beharra dago.

Erakundea babestu behar duzu gerta ahala gerta. Ez zenuke nahi zure erruz inor erortzea, edo, erortzekotan, ahalik eta jende gutxien, baina zure burua ere zaindu beharra daukazu. Ez zara aske aterako, hori badakizu; besteak beste, epaitegian dei bat daukazulako zain, eta, beste kausa bat bitarteko, auzipeko ihesian epaituta zaudelako eta bi urteko zigorra eman dizutelako. Gainera, 1969ko eroriko handi hartan Jabier Larena atxilotu zutenetik, beste kargu bati ere egin behar diozu aurre; beraz, kontua bestelakoa da: zenbait urtetako kartzela, edo bizitza osokoa bestela. Ez daukazu beste atarramenturik.

MENTXAKAREN AITORPENA, 1. atala

Antonio, zure ezizen berriarekin zaude batez ere kezkatuta. Mahaikideak dauzkazu gogoan, eta ohartu ote dituk zertan nabilen? egin duzu galde. Ez duzu "Mentxaka" izenarekin lotzea nahi. Zure guda-izenari buruzko galdea eginez gero, Antonio behar dute esan. Seguru egoteko, zure lagunekin jarri behar duzu harremanetan, eta Antonio deitzen zarela, Antonio bihurtu nahi duzula adierazi behar diezu berandu baino lehen, baina ez dakizu nola.

Oraindik pasilloan zaude, eta ez da leku txarra aldameneko ziegaren batera hurbilduta baten batekin hitz pare bat aldatzen saiatzeko. Mila buelta eman dizkiozu buruari. Ate metalikoaren atzean, ordea, metro gutxi batzuetara, polizia dago zure zain. Adi-adi jarriko zara, eta, zurekin ahaztuta daudela susmatuz gero, aukera erabiliko duzu; berriketan edo karta-jokoan, esate baterako, edo momentu batez alde egingo balute bestela. Unerik egokiena baliatzen saiatu behar duzu. Ahaleginak egiteko prest zaude, baina entzungo al dituzte zure hitzak ziega barrutik?